

2005EKO URRIAREN 13KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko urriaren hamahiruan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko irailaren 7an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Inazio Estensoro zinegotzia bertaratu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 8 zbk.dun fakturen zerrenda, HUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST euro eta LAUROGEITA HAMASEI zentimo (173.495,96 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 796 zbk.dun esped.: astean 6 egunetan egunean ordu beteko zerbitzua ematea. Onuradunak zerbitzu kostuaren %3ko aportazio egingo du.

- 560 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja eman zazio, bere eskariz, 2005eko irailaren 16ko datan.

- 75 zbk.dun esped.: astean 2 egunetan egunean 2 orduko zerbitzua ematea. Onuradunak zerbitzu kostuaren %24ko aportazioa aportazioa egingo du.

- 611 zbk.dun esped.: astean 5 egunetan egunean ordu beteko zerbitzua ematea. Onuradunak zerbitzu kostuaren %15eko aportazioa egingo du.

- 127 zbk.dun esped.: astean 3 ordutako zerbitzua ematea. Onuradunak zerbitzu kostuaren %3ko aportazioa egingo du.

- 712 zbk.dun esped.: astean 6 egunetan egunean ordubetetik astean 6 egunetan egunean 2 ordutara zerbitzua gehitzea. Onuradunak zerbitzu kostuaren %24eko aportazioa egingo du.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak. -

- 198 zbk.dun esped.: dirusarreraren aldaketagatik, etxebizitzaren mantenimenduko gastuak ordaintzeko dirulaguntza aldatzea, 46,23€tik 31,43€ra. Ematen zaiona eskatutakoaren %68a da.

Telealarma zerbitzua. -

- 148 zbk.dun esped.: aurrerantzean seme-alabekin biziko dela eta, baja zerbitzutik 2005-eko urriaren 7an.

- 720 zbk.dun esped.: aurrerantzean seme-alabekin biziko dela eta, baja zerbitzutik 2005-eko irailaren 22an.

Eguneko Gai Zerrendatik kanpo eta aurrez, presakazko izaeraz tratatua izateko guztien adostasunarekin, ondorengo gai honetaz eztabaidatu eta erabakitzen da.

IV.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK. -

Mintzalagun Proiektua. -

Euskara Batzordetik Mintzalaguna Proiektua martxan jarri eta aurrikusten diren gastuei aurre egiteko Goierriko Euskal Eskolari 4.000 eurotako dirulaguntza emateko egi-ten proposamena ikusi ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak dirulaguntza hori onartzea erabakitzen du.

Euskara eskoletako dirulaguntzak. -

Euskara Batzordetik, 2004-2005 ikastaroan euskara eskoletara joan direnei dirulaguntzak emateko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, proposamena onartzea erabakitzen du. Guztira 36 ikasleri ematen zaie dirulaguntza, 6.610,20 €takoa. Dirulaguntza hau ematerakoan jarraitzen diren erizpideak honako ahuek dira: Lazkaon erroldatua egotea, eskola asitentzia gutxienez %80koa izatea eta beste erakundeetatik inolako dirulaguntzarik ez jasotzea. Bakoitzari ematen zaiona matrikula kostuaren %60a da eta ikasle zerrenda bere espedientean aurkitzen da.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK. -

Alkateak GOIEKIn Goierri mailako argitalpenen inguruan hartutako erabakiaren berri ematen du. Esaten du erabaki horren arabera prentsa idatziarentzat biztanleko 2 eurotako dirulaguntza bideratuko dela eta Goierriko beharretara gehien egokitzen dena Hitza aldizkaria dela kontsideratuz, dirulaguntza hau Hitza argitalpenari ematea erabaki zela.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.